

## Ekonomi Itunaren Organoak

ORGANOAK	EKONOMI ITUNAREN BATZORDE MISTOA	ARAUGINTZA KOORDINATU ETA EBALUATZEKO BATZORDEA	EKONOMI ITUNAREN ARBITRAJE BATZORDEA
	12 kide	8 kide	3 kide
<b>Osaketa</b>	Estatuko Adm.: 6 Eusko Jaurlaritza: 3 Foru Aldundiak: 3	Estatuko Adm.: 4 Eusko Jaurlaritza: 1 Foru Aldundiak: 3	Ministroak eta Sailburuak izendatuta itzal handiko adituen artean
<b>Erabakiak</b>	Aho batez	Gehiengoz	Gehiengoz
<b>Eginkizunak</b>	<p>Hurrengo erabakiak hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ekonomi Itunaren aldaketak</li> <li>Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, Estatuarekin koordinazio eta elkar-lanerako konpromisoak</li> <li>Bost urteko epealdi bakoitzean kupoa zehazteko metodologia</li> <li>Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea</li> <li>Ekonomi Itunak ezarritakoa garatu eta aplikatzeko unean-unean behar diren erabaki guztiak, tributuen arloan eta finantzen arloan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Tributu-arauak Ekonomi Itunera egokitzen diren ebaluatzea, arauak argitaratu aurretik.</li> <li>Ekonomi Itunak jasotako loturaguneen aplikazioaren gainean egin daitezkeen kontsultak konpontzea.</li> <li>Hauekin lotuta planteatzen diren oharra konpontzea: eskumenak koordinatzeko ustezkoak, lotutako pertsona eta erakundearen artean egindako eragiketak erregularizatzeari dagokionez, jasandako kuoten edo jasanarazitakoen aldaketadun eragiketak kalifikatzeari dagokionez.</li> <li>Egoki deritzon azterlanak egitea, araubide autonomikoaren eta Estatuko marko fiskalaren arteko uztarketa behar bezala gauzatzeko, eginkizunaren eta egituraren aldetik.</li> <li>Administrazio eskudunei euren jardunerako irizpide bateratuak eta informatikako plan eta programak eskaintzea, eta elkar-lanerako printzipioa eta informazioaren trukaketa benetan gauzatzeko tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak eratzea.</li> <li>Ikuskapen arloan Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean sor litezkeen kasuak edo arazoak aztertzea, baita tributuetan izan litezkeen balorazio-arazoak ere.</li> <li>Ogasun Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako Ogasuneko Sailek, eta Arbitraje Batzordeak eskatutako txostenak egitea.</li> <li>Ekonomi Ituna betetzeko eta aplikatzeko behar den gainerako edozein eginkizun.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekonomi Itunaren aplikazioaren gainean, Foru Aldundietako Administrazioen eta Estatuko Administrazioaren arteko gatazkak konpontzea, bai eta Foru Aldundietako Administrazioen eta Autonomia Erkidegoen Administrazioen arteko gatazkak ere. Gatazka horiek izan daitezke eskumenei buruzkoak, edo Ekonomi Itunaren aplikazioa norbanakoen tributuharremanen gainekoak.</li> <li>Administrazio interesatuen artean sor daitezkeen gatazkak erabakitzea, norbanakoen tributuharremanen gainean Ekonomi Ituna kasu zehatzetan aplikatu eta interpretatu behar denean.</li> <li>Zergadunen egoitzari buruz sor daitezkeen desadostasunak ebaztea.</li> </ul>